Usurbilgo Udala

PROZEDURA IREKI BIDEZKO HORNIDURA KONTRATURAKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

FUNTZIO ANITZEKO HONDEAMAKINA KARGATZAILEA (MIDIHONDEAMAKINA) HORNIDURA KONTRATATZEA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren xedea Obra eta Zerbitzuetako udal lantaldearentzako funtzio anitzeko makinaren hornidura da; zehazki, eraikuntza-lanak egiteko, sasiak garbitzeko edota bide-lanak egiteko gurpildun hondeamakina da ("midihondeamakina"), pisu operatiboduna, kabina eta aurrean 8 eta 10 tona bitarteko zalia dituena. Ibilgailua berria izango da.

2. HORNIKUNTZA EMATEKO MODUA

1 .Hornidura Atalluko Udal biltegian (Zapiura 3-5, Atallu industrialdea, 20170 Usurbil, Gipuzkoa) emango da eta eskaturiko xehetasun guztiak betetzen dituela ziurtatzen denean enpresako arduradun batek Udal arduradunarekin batera harrera akta sinatuko du.

2 .Matrikulatuta entregatuko da eta esleipendunaren kargu izango dira matrikulaziotik sorturiko gastu guztiak.

3 .Osagai eta ekipamendu guztiak fitxa teknikoan eta gainerako agirietan isladatuko dira eta beti ere homologatuta egongo dira.

4 Makina matrikulatuta entregatuko da, paperean eta formatu digitalean hurrengo dokumentazio guztiarekin:

- Azterketa Teknikoko txartela
- Zirkulazio baimena
- Trakzio mekanikoko Ibilgailuen Zergaren autolikidazioa
- Bermearen ziurtagiria
- Erabilera eskuliburua, taller ofizialen sarea eta makinaren erabiltzaileentzako erabilgarria izan daitezkeen beste edozein agiri

5 .Nahiz eta Makina hornitu, honek ez baldin baditu eskatutako xehetasun guztiak betetzen ez da harrera aktarik sinatuko.

3.- FUNTZIOAK

Makina hau erosita Obra eta Zerbitzuetako udal lantaldeak honako lanak burutuko ditu:

1. Hondeamakinarekin egin beharreko herri-lanak, orokorrean: zangak egin, lurra mugitu,

harri-lubetak sortu, edota harri zein hormigoia zulatu.
2. Edateko ura banatzeko-sarearen mantentze eta konpoketa lanak egin.
3. Landa-bideak mantentzeko eta zenbait nekazal ingurunetako sastrakak garbitzeko lanak egin.
4. Landa-bideak egoera onean mantentzeko lanak, orokorrean.
5. Zamalanak, orokorrean.
6. Bide publikoetako ubideak garbitu.
7. Zorua berdintzeko lanak, orokorrean.
8. Lorezaintza-lan jakin batzuk egin, hala nola belarra zein landareak garbitu, zuhaitzak eta landareak inautsi, orokorrean,
9. Tankerako beste zenbait lan.

4.- XEHETASUN TEKNIKOAK

● MOTORRA

- Potentzia nominala (ISO 9249), 85 KW, (115 CV) 2.200 r/min-ko. Turbokonpresora, hoztutako aireduna.
- 3.600 cm3-ko zilindro-bolumena.
- Ur bidez hozten duten 4 zilindro. Zuzeneko injekzioa eta emisio-maila baxua.
- Zeharkako posizioan TIER IV araudia bete beharko du.
- Gehieneko indar momentua 488 NM-koa, 1.600 r/min-ra, 460 NM ralentian.
- Zarata-maila baxua 2000/14/CE: 101 dB(A) kanpoan.
- Barruko zarata-maila: 71 dB(A).

● TXASIS ARTIKULATUA

- Tamaina bereko lau gurpil eragile (405/70-20 14PR).
- Ardatz eragile zurrun finkoa aurrealdeko txasisaren gainean.
- Ardatz eragile oszilatzailea atzealdeko txasisaren gainean, 10 º +/-.
- Oszilazio-blokeatzailea 2 zilindro hidraulikoko
- Irristatze-diferentzial mugatua 2 ardatzen gainean.
- Bi ardatzetan integratutako disko anitzeko olio-bainuko balaztak.
- Zirkuitu itxiko transmisio hidrostatikoa.
- 32 km/h-ko translazio-abiadura.
- 2 abiadura hidrauliko.
- Aginte hidraulikodun egonkortzaile zurrun eta independenteak.
- Orbitrol direkzio hidraulikoa.
- Makinaren zabalera 2.250 mm-koa.

● BIRAKETA-SISTEMA

- 360 º-ko biraketa.
- Barruko horzdun koroen bidezko eragingailua.
- Balaztadun motor hidraulikoaren bidezko orientazioa.
- 9 r/min-ko biraketa-abiadura.
- 750 cm3 -ko motor hidraulikoa, gehienezko presioa 230 barekoa.
- 42 l/min-ko zilindrada finkoko engranaje-ponpa.
- Moteldutako «cross over» balbula biraketa-mugimenduan dagoen dorrea mugimenduan jarri edo pixkanaka gelditzeko.

- Erraz mugi daitekeen besoa, erradio txikian zuloak egin, karga hartu eta uzteko aukera ematen duena 2.760 mm-ko zalidun dorre birakariari esker.
- Dorrearen erditik besoarenera 1.790 mm direla, bi aldeetako zein alboetako sastrakak kendu ditzake 3-6 metrora, gehi ekipoa.
- Beso artikulatuari esker, makinarekiko paraleloan hondeatu dezake.

● MAKINAREN GEHIENEKO PISUA: 8 ETA 10 TONA ARTEAN.

● KABINA

- Lan-arriskuak -ergonomikoak zein segurtasunezkoak- prebenitzeko araudiak betetzen dituen kabina panoramiko homologatua,
- Aurrealdeko haizetako tolesgarria.
- Alboko kristal irristagarria.
- Ur bidezko berogailua ISO 10263 araua betetzen duena. Emari handiko (320 m3/h) aireztapena.
- Egoki daitekeen eserleku pneumatikoa, gidariaren morfologiaren baitako posizio guztien neurrirakoa.
- Manipulatzaile ergonomiko proportzionalek lagundutako aginteak.
- Irratia, CD-irakurgailua eta 2 bozgorailu.
- Makinaren segurtasun-elementuak eta funtzioak zaintzeko kontsola elektronikoa.
- 360 º-ko ikuspena.
- Kanpoko atzerako ispiluak.
- Etzan eta egokitu daitekeen direkzio-zutabea.
- Lanerako 2 argi aurrealdean eta 1 atzealdean.
- Argi birakari dizdizaria.
- Atzera-martxa alarma.
- Aurreko bisera.
- Barruko zarata-maila 71 dB (A).
- Berogailua.
- Orientazio-motor geldoa eta moteldutako balbula ditu dorrea 360 º biratu ahal izateko.

● HONDEATZEKO ETA ZAMA-LANETARAKO SISTEMA HIDRAULIKOA

- 150 cm3-ko ponpa hidraulikoa, zilindro-bolumen aldagarrikoa.
- Gehieneko presioa 280 barekoa.
- Gehieneko emaria 182 l/min-koa.
- Zilindro-bolumen aldagarridun translazio-ponparen potentziaren erregulazioa.
- Orientazio-ponpak elikatutako orientazio-motor geldoa eta Hydrosensor moteldutako balbula ditu dorrea 360 º biratu ahal izateko.
- Banagailu hidraulikoa blokeatzeko aukera.
- ZINEMATIKA, hiru zatiko beso aldakorduna: besaurrea, besoa eta balantzina.
- 140 º-ko mugimenduak egiteko aukera ematen duen biela eta zilindro hidraulikoen bitartez eragindako karga-besoa.
- Ezker zein eskubi albo-mugimendua zilindro hidraulikoari esker.
- Hondeaketa-indarren eragin osoa mantentzea ahalbidetzen duen sistema, ekipoaren alboko mugimenduaren posizio angeluarra edozein dela ere.
- Estankotasun-junturadun euskarri-kojineteak.
- Mugimenduak amaitzeko motelgailua duen zilindro hidraulikodun karga-besoa.

- Gehieneko sartze-indarra: 3400 daN.
- Gehieneko hondeaketa-indarra: 6150 daN.
- Kargatzailearen gehieneko hondeaketa-indarra: 6400 daN.
- Eskuzko koipeztatze zentralizatua puntu batean, paralelogramoaren aldibereko koipeztatzea. Kabinatik kontrolatutako osagarriak.
- Besoko osagarri hidraulikoekin lotutako agintea.
- Gertu edota makinaren azpian hondeatzeko aukera emateko besoaren zinematika.
- 4.000 kg 2 metroko distantzian altxatzeko gaitasuna duen garabi-kakoa.
- Makinaren azpitik 3 m-ra zein 6,5 m-ko garaieran paletekin lan egiteko aukera
- Ezker zein eskubi albo-mugimendua zilindro hidraulikoari esker.

HONDEAKETA AUKERA + ZAMALANETARAKO AUKERA

- Hondeamakina moduan erabiltzeko, lurra mugitu zein berdintzeko, aldi berean konbinatu beharko dira besoaren zilindroen mugimendua eta karga besoaren aurrealdearena (bi zatiko zinematika duten hondeamakinak gidatzen diren bezalatsu).

- Konpontze- eta berdintze-lanak. Honakoa beharko du: zalia ireki eta ixteko agintearen inbertsioa, aurrera- eta atzera-martxetarako aginteak bateratzea, abiadura motela, abiadura azkarra eskuin-eragingailuarekin = zamalanetarako makina klasikoa bezala gidatzen da.

● <u>EKIPAMENDUA</u>

- Tresnak kargatzeko kabinan bi posizioetan tresna hidraulikoak eta eragingailuak eramateko gailua,
- Krokadurako atoi azkarra.
- Tresnak emarian nahieran doitzeko aukera.
- 900 mm-ko zalia.
- Kargak altxa eta eusteko kit 4 segurtasun-balbulen instalazioa.
- 120 l-ko mailuaren instalazioa.
- X3 biraketarako instalazio hidraulikoa.
- Kabinarentzako bisera.
- Eskuzko koipeztatze zentralizatua puntu batean, paralelogramoaren aldibereko koipeztatzea.
- Kapota babestekoa
- Atzera-martxa alarma
- Biraketa-argia
- Erregaia betetzeko ponpa.
- Sasi-garbitzeko makinaren erretorno-tanga
- Mailuarentzako estalkia.
- Conect atoien 7 sorta.

5.- BESTELAKO BALDINTZAK

Makina berriari egokitu beharreko egungo 7 osagarri.

6.-BERMEA

Berme hau hornituriko makinaren garantiari dagokio. Urte beterako finkatzen da gutxienez eta proposamenean zehazten den epean zehar luzatuko da (balorazio irizpidea baita berme epea luzatzea). Berme epea harrera akta sinatzen denetik hasiko da kontatzen.

Epe honen barruan esleipenduna beharturik egongo da makinari dagokion materialean, honen eraikuntzan edo diseinuan egon daitezkeen akatsengatik beharrezkoak diren ordezkapenak egitera.

Usurbilgo Udalak beharrezkoa ikusten badu akats edo aberia jakinarazten denetik kontatzen hasi eta makinaren bila beraiek etortzera eta 24-72 orduko tartean dagokion konponketa egitera.

Esleipendunak, derrigorrez, maila nahikoa duen kontzertaturiko tailer bat eskainiko du Autonomia Erkidegoan Zerbitzu Ofiziala emateko. Berme epean dohain eman beharreko zerbitzuaren barne sartuko dira desplazamenduak, eskulana, ordezko piezak eta tailer mugikorraren disposizioa matxuraren bat izango balitz erabiltzailearen helbidean gehienez 48 orduan egoteko eta beharrezko piezak hornitzeko.

Diseinu edo fabrikazioko akatsen ondorioz errepikakorrak diren matxurak sortzen badira, berme-aldian esleipendunak hauek konpontzeko beharrezko neurriak ezarriko ditu.

7.-PERTSONALGOAREN FORMAZIOA

Behin hornidura Udal biltegian utzi eta gero , esleipendunak konpromisoa hartuko du bere kargura Udalak izendatuko duen pertsonalgoa makinaren abiarazte edo martxan ipintze ikastaldi zuzen batean formatzeko. Gutxienez 5 orduko ikastaroa emango zaie.

8.-SALDU ONDORENGO ZERBITZUA

Saldu-ondorengo zerbitzuari dagokionez Makinaren osagarri guztien zerrenda aurkeztu beharko du esleipendunak. Osagarri horiekin batera makinaren izen komertziala eta erreferentzia aurkeztuko dira. Esleipendunak konpromisoa hartuko du zerrenda hori eguneratuta edukitzeko aldaketaren bat gertatuko balitz.

Esleipendunak maila nahikoa duen kontzertaturiko tailer bat eskainiko du Autonomia Erkidegoan Zerbitzu Ofiziala emateko.